

- Gure lanean aurkitu dezakegun beste arazo bat, sarea gaizki funtzionatzea izango litzateke. Kasu honetan, sareak eman dezakeen arazoak konponduko genuke, atal honetaz Mabel lankidea arduratuko litzateke, informatikoa delako. Arazoa konpontzen denbora gehiegi luzatzekotan, bezeroei eta bazkideei abisatu egingo genieke, horrela ekiditeko genuke bezeroen eta bazkideen galerak izatea.

Aipatutakoaz gain, gure webgunea ondo egoteko eta bezero zein bazkideak pozik izateko gauza hauek kontutan hartzen ditugu:

- **Plataformaren antolaketa:** Hitz teknikoak ez ditugu erabiliko bezero eta bazkide guztiak ondo uler dezaten informazio guztia.
- **Plataformaren mantenimendua:** Bertako informazioak egunero edo astero berrituko dugu, hau da, informazio, jolas, kasu kliniko, eta erosketa produktu berriak jarriko ditugu, horrela; bezero eta bazkideari ez baititugu aspertuko.
- **Plataforma sustatu:** Bazkide eta bezeroen kopuru kontrol bat eramateko, urte osoko bezero eta bazkide kopuruaren media bat egingo dugu, horrela jakingo dugu zenbat bezero edo bazkide berriak dauzkagun eta zenbat galdu ditugun, baina hau urtean behin egingo dugu.

Beraz, hau guztia ikusita argi dago guk gure enpresaren funtsezko jarduera guztiaz arduratuko garela, aldizkari formatu fisikoen garraioaz izan ezik, horretarako enpresa garraio bat kontratatuko dugulako.